

## Urteko 26. Igandea (B)

### **LEHENENGO IRAKURGAIA**

*Niregatik jeloskor? Nahiago nuke herri osoa profeta bihurtzea.*

#### **Zenbakiak liburutik 11,25-29**

Egun haietan, Jauna jaitsi zen lainoan eta Moisesekin mintzatu zen; gero, Moisesek zuen espiritutik hartu eta hirurogeita hamar herri-arduradunei isuri zien. Espiritua haiengan kokatu orduko, profeta gisa hasi ziren mintzatzen, baina ez zuten jarraitu.

Bi gizaseme, bata Eldad izenekoa eta bestea Medad, hirurogeita hamarren taldekoak izan arren, ez ziren etxolara joan, baizik eta kanpalekuan gelditu ziren. Baina kokatu zen espiritua haiengan ere eta profeta gisa hasi ziren mintzatzen. Orduan, mutiko bat korrika joan zitzaion Moisesi, esatera:

– Eldad eta Medad profeta bezala mintzatzen ari dira kanpalekuan.

Nunen seme Josuek, gaztetandik Moisesen laguntzaile zenak, esan zuen:

– Ene jaun Moises, galaraz iezaiezu!

Moisesek ihardetsi zion:

– Niregatik jeloskor? Nahiago nuke herri osoa profeta bihurtzea, Jaunak bere espiritua denei ematea!

Jaunak esana

### **SALMOA**

#### **Salmoa 18,8.10.12-13.14**

**R.**

*Jaunaren legeak zuzenak, bihotzaren pozgarri.*

Jaunaren hitza ezin hobea:

gizakia arnasberritzen du;

Jaunaren manamendua fidagarria:

heldugabea zuhurrarazten du. **R.**

Jaunaren promesa garbia:

betiko dirau;  
Jaunaren erabakiak egiazkoak:  
den-denak bidezkoak **R.**

Zure morroi honek haietan du argia,  
benetan onuragarri haiek betetzea.

Nork ezagutu bere hutsegiteak?

Aska nazazu oharkabeko erruetatik. **R.**

Zaindu nazazu harrokeriatik:  
ez dakidala nagusitu;  
horrela, akats gabe izango naiz,  
bekatu larritik libre. **R.**

## **BIGARREN IRAKURGAIA**

*Ustelak jota daude zuen aberastasunak.*

### **Santiago Apostoluak egindako gutunetik 5,1-6**

Entzun orain, zuek, aberatsok! Egin negar eta aiene, gainera datozkizuen zoritxarreatatik . Ustelak jota daude zuen aberastasunak, eta sitsak janda zuen jantzi dotoreak . Herdoilak jota daude zuen urre-zilarrak, eta herdoil hori izango duzue lekuko zeuen kontra, eta suak bezalaxe jango du zuen haragia. Auzi aurreko azkenak diren egunotan pilatu dituzue aberastasunak. Zuen soroetako uza bildu zuten langileei ordaindu ez zenieten soldata deiadarka ari da, eta igitarien oihua Jaun ahalguztidunaren belarrietaraino iritsi da. Bapo bizi izan zarete zuek hemen lurrean, atseginetara bete-betean emanak; horrela, abereak bezala gizendu zarete hilketa-egunerako . Errugabea kondenatu eta hil duzue , eta inork ezin izan dizue aurre egin.

Jaunak esana.

### **Aleluia Jn 17,17b.a**

Aleluia, aleluia.

Zure mezua egia da;  
har itzazu zeuretzat egiaren bidez. Aleluia

## **EBANJELIOA**

*Gure kontra ez dagoena gure alde dago. Zeure eskuak galbidean jartzen bazaitu, moztu.*

**+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Marcosen liburutik 9,38-43.45.47-48**

Joanek esan zion:

– Maisu, gizon bat ikusi dugu zure izenean deabruak botatzen, eta eragotzi egin nahi izan diogu, ez baita gure taldekoa.

Baina Jesusek erantzun:

– Ez eragotzi; ez baita inor nire izenean mirari bat egin eta gero nitaz gaizki-esaka jardungo duenik. Hau da, gure kontra ez dagoena gure alde dago. Benetan diotsuet: Mesiasen jarraitzaile zaretelako, ontzixka bat ur bada ere ematen dizuen inor ez da saririk gabe geldituko.

«Sinesten duten txiki hauetakoren baten sinesmena galbidean jartzen duenak, hobe luke errotarri bat lepotik lotu eta itsasora amilduko balute. Zeure eskuak galbidean jartzen bazaitu, moztu; hobe duzu eskumotz betiko bizitzan sartu, bi eskuekin infernura, itzalezineko sutara, erori baino. Zeure oinak galbidean jartzen bazaitu, moztu; hobe duzu hankamotz betiko bizitzan sartu, bi oinekin infernura jaurtia izan baino. Zeure begiak galbidean jartzen bazaitu, atara; hobe duzu begibakar Jainkoaren erreinuan sartu, bi begiekin infernura jaurtia izan baino; han ez da barruko harra hiltzen, ez eta sua itzaltzen.

Jaunak esana.

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>